

52/2022 Ebazpena. Langileen kontratazioa

Leitzan, 2022ko abenduaren 20an

Unai Miranda Berroeta, Mendialdea Mankomunitateko Lehendakariak, kontuan hartuta, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua, bere 21.1 h) artikuluan araututakoaren arabera ditudan eskumenak, honen bitartez, **ADIERAZTEN DU:**

LEHENENGO: Batzarraren 2022ko urriaren 27ko erabakiaren bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onartu zen, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Deialdi hori 2022ko azaroaren 14ko 225. NAO-n argitaratu zen.

BIGARREN: Deialdi hori peoi gidari lanpostuari dagokio.

HIRUGARREN: 6. oinarrian hautagaiak onartzeari buruz xedatutakoa ikusita.

LAUGARREN: Baztertutako hautagairik ez dagoela ikusita.

Hau guztia kontuan hartuta, **EBAZTEN DUT:**

LEHENA: Aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzea, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Bete beharreko lanpostua: peoi gidaria.

Onartutako pertsonen zerrenda.

Aizpitarte Salaberria, Jose Maria

Aldalur Zulaika, Andoni

Ballaz Barrios, Jon

Ciaurriz Marco, Eneko

Elizegui Mendizabal, Asier

Gorostidi Mugica, Urko

Laborda Roncal, Eduardo

Perez Sagastibelza, Unai

BIGARRENGO: Ebazpen hau toki entitatearen atariko deialdiaren web fitxan argitaratzea,

Leitzan, 2022ko abenduaren 20an.

Lehendakaria,

Idazkariaren B.O.

Unai Miranda Berroeta

Garazi López Villanueva

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da:

1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa,

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.